

5.- Erronka handia da hau. Ez dago errezetarik. Bidea bilatzean datza, sasoiak zantzuak bereiztean, Vatikanoko II. Kontzilioak gogoratzen deuskunez. Ezinbestekoa da errealidadea arretaz entzutea, irakurketa sinisteduna egitea. Izan be, ezin dogu ahaztu Jesusen Jaungoikoak historian hitz egiten deuskula, historian gizon egiten dala, irrika eta oinazeetan bat egiten dogun gizon eta emakumeen bizitzan, batez be behartasunean dagozan eta bidegabekeria jasaten daben gizon eta emakumeen artean aurkituko dogula. Errealidadetik abiatu. Errealidadea eremu teologikoa da. Vatikanokoll.a Kontzilioko Gaudium et Spes agiria hasiera ekarriko dogu gogora: *“Oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira eta ez da gizakiarenik ezer, haien bihotzean oihartzunik ez duenik”* (GS, 1).



## OTOITZA

Jauna, Jesusen Aita,  
 izan zaitez bilatzen zaituen guztien gidari,  
 zure presentziaren zeinuak, zeinu harrigarriak aurkitu daiezala;  
 zabaldu gorren belarriak, zure Semearen Hitza entzun daien;  
 itxuraldatu zure Hitza eta Barri Ona iragartendabenak,  
 iragartendogunok, sinisgarri izan gaitzean;  
 gazteek entzun daiezala zure deiak, zure hitzak  
 eta aurkitu daiela Zugan biziaren iturria.

Bedeinkatua Zu, Aita,  
 zure Aintza gure gizatasunean agertzera emoteagaitik.

Munduko gauzetara lotzen gaituen  
 segurtasunetatik ataragaitezala gura dozu,  
 eta alkarregaz zure Graziaz eskaintzen deuskuzun  
 bizitza santura zuzendu deioguzala gure begiak  
 geuk ere jadetsi daigun, zure Semeari begiratu  
 eta bere Hitzak Ebanjelioan entzunez.

Aita, gurtzen, sinisten, itxaroten eta maitatzen zaitugu.

## GARIZUMA ALDIKO DOMEKETARAKO HOMILIETARAKO OHARRAKELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN HARITIK

### GARIZUMA ALDIKO 2. DOMEKA – 2017ko MARTXOAK12 JESUS, JAUNGOIKOA DA

- **Hasiera 12, 1-4**

Jaunak esan eutsan Abrahami: **“Itzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko deusudan lurraldera. Herri handi egingo zaitut... Abiatu zan, beraz, Abraham, Jaunak agindu lez.**

- **Paulok Timoteori 1, 6-10**

Jaungoikoaren indarraz fidatuta, sufritu eizunigaz batera barri onaren alde. Jaungoikoak salbatu ginduzan eta bere herri santu izatera dei egin euskun, ez gure egintzengaitik...



- **Mateo 17, 1-9**

Jesusek Pedro, Santiago eta honen anaia Joan hartu eta mendi garai batera eroan ebazan aparte... Eta mintzo batek hodeitik esan eban: **“Hauxe dot neure Seme maitea, hauxe dot atsegin. Entzun berari!”**.

1.- Jesusen ikasleak Tabor mendian dagoz. Aparteko esperientzia bizi dabe eta hortxe, leku horretan iraunarazo gura dabe dalako esperientzia hori, barrero be eguneroko kontuetara jatsi barrik. Gustura dagoz eta denda jarri gura dabe han, bertan geratu... Baina Jesusegaz bat egitearen esperientziak berezko bizitasuna dau eta horrek abiatzera, mobitzera, geldirik ez geratzera, bizi izandakoa beste batzuei iragartera... bultzatzen dau. *“EvangeliGaudium”* agirian nabarmentzen danez: *“Ebanjelioaren poza... misio poza da... irteeraren eta dohainaren dinamika, nor beretik irtetearena, ibiltearena, beti berriz eta beti haratago ereitearena...”* (21). Baina

autortu beharra dago misino dinamika horrek beti ez daualaoihartzunik gure alkarteetan, hau da, *“aztertzeko eta eraberritzeko parrokiei egindako deiak ez duela oraindik nahikoa fruitu eman, jendearengandik gertuago egoteari dagokionez, komunio eta parte-hartze gune izateari dagokionez eta misioari erabat zuzenduak egoteari dagokionez”* (28). Ausardiak jokatu behar dogu. Geure barrutik urten, inertziak gainditu. *“Misio-erako pastoraltzak alde batera utzi nahi du «beti honela eginda» esatearen irizpide pastoral erosoak. Elkarte bakoitzak ebanjelizatze dituen helburuak, egiturak, moldeak eta moduak berriz pentsatzerakoan, ausartak eta sormendunak izateko gonbidapena egiten dizuet denoi”* (33). Gatxa egiten ete jaku geure burua Abrahamen erradikalitatean ikustea? Zerk atxikitzen gaitu? Zerk geldiarazoten eta erositzen gaitu?

2. Eginkizun hau ez da gitxi batzuentzat, ez dagokie abadeei, lekaideei edo lekaimeei bakarrik, laikoena da batez be, hau da, batez be gizartean, munduan azaltzeko deia jaso daben gizon eta emakumeena.



Gogoratu daigun *“Kristau laikoak Eliza munduan”* agiri esanguratsuak dinoskuna: *“Laiko guztiek Eleizaren misino ebanjelizatzailean parte hartzea sekula baino preminazkoagoa da gaur. Inoiz ez bezala, ezinbestekoa dala esan daiteke. Gero eta sekularizatuago dagoan gure gizartearen autonomia; fedearen eta eguneroko bizitza publiko eta pribatuaren arteko nahita justifikatutako banaketa; fedea pribatuaren eremura murrizteko tentazinoa; balioen krisia eta, aldi berean, egiaren eta zentzunaren bilaketa; zuzentasun, alkartasun eta bakezko helbururik zintzoenak; autortutako eta ez urratutako eskubideen autormen eraginkorra; izadiaren defentsa... dira, besteak beste, katoikoak berandu baino lehen ebanjelizatze barria martxan jartera, biziaren eta egiaren, zuzentasun eta bakearen, alkartasun eta maitasunaren kultura eta zibilizazio barria suspertzera bultzatzen dabean erronkak* (CLIM, 43). Barri Ona bizigiroetara eramateko bultzada sentitzen dogu ala hori geure eremu pribaturako dala uste dogu? Geureak be ete dira mundu hobe eraikitzeke kezka? Nogaz konpartitzen doguz kezka horreek?

3.- Gure lekua munduan dago; bizigiroetan egon behar dogu, kanpoaldeetara atara, arriskatu, Abrahamek egin eban lez, Barri Onaren transmisioan ardurakide sentitu, Paulok Timoteori behin eta berridinatzen. Ebanjelioa geure bizitzaren egunerokotasunean iragarri. Ez dago leku arrotzik guretzat. *“Laikoen jardura ebanjelizatzailearen berezko eremua, bakarra ez bada be, bizitza publikoa da, «politikaren, sozial eremuaren, ekonomiaren mundu zabal eta korapilatsua; eta kulturarena, zientzia eta artea, nazioarteko bizitzarena, gizarte komunikaziorako organoena; eta ebanjelizatzearen bereziki zabalik dagoen beste hainbat errealitateena: maitasuna, familia, ume eta gaztetxoaren hezkuntza, lan profesionala, sufrimentua»* (CLIM, 45). Bat gatz testuak dinoskuz? Ze zailtasun antzematen dogu geure buruagan eta besteengan kristau lez munduan izan beharko geunkeen agerpen horren inguruan?

4.- Horretan oinarrituta bizitzea, Ebanjelioaren poza biziz, Jaungoikoak bere herriko kide izateko deiari erantzunez, Bere antzeko, santu izateko deia da. Santutasuna ez da kontu zaharra, zaharkitutakoa edo super-gizon edo emakume bakar batzuei dagokiena. Jesus bizi izan zan lez bizitzea da. Ikasleek antzeman eben lez, izateko era barria antzemate, bizitza aldatzen dauan izateko era, Aitarene kutunen alde azken ondorioetaraino ahalegintzea. Fedea eta Bizitza buztartuz.



Lehen aitatu dogun agiriaren haritik Eleizeakdinoanez hauxe dakar: *“Kristinau guzien santutasunerako deiaren lehentasuna egintzetan egiaztatzen da: bizitzaren lekukotasuna, fede autormena, otoitza, alkartasuna, zuzentasunaren aldeko lana, behartsuen aldeko alkartasuna eta pobretasun ebanjelikoa... Alkate eta mobimentuak lagungarri izango dira bihotz-barritze pertsonalerako –fedearen eta kideen bizitzaren arteko dibortzioa gainditzeko- eta gizon eta emakume bakotxaren eta guztien osoko askapenerako: izan be, «gaur santutasuna ezinezkoa da zuzentasunaren aldeko konpromiso barik eta behartsuen eta zapalduen aldeko alkartasun barik»* (CLIM, 99). Pentsatu ete dot noizbait santutasunerako dei horren esanguran? Neurtzat be badan dei lez sentitzen ete dot?